

noaue



**Haur Eskola, ikasturte
berrira begira**

**Lehen Txalaparta Festaren
atarian**

**Hausnarketarako gune aske
berria**

Argazkia: Maria Angeles Arruti

Aurten bai!

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



Uztailak 2,3 eta 4an
Irisarrin izango den
Euskal Herria Zuzenean
jaialdirako
3 eguneko sarrera bikoitza
zozketatuko dugu, maiatzaren 27an



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!!

943 364600

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

Euskarari “herri bultzada” emateko manifestaziora joateko deia

Zubietako Eskolako irakasle, haur eta gurasoek ere bat egin dute eus-kalgintzako 12 eragileekin batera (besteak beste, NOAUA! K.E. kide duen Euskaltzaleen Topagunea, Kontseilua, Jakin, Elhuyar, Bai Euskarari, AEK, Ikastolen Elkarte, Usurbil kide duen UEMA, Elkar edota EHE), maiatzaren 21erako deitu eta 17:30etan Antiguako tuneletik “Euskara Aurrera” aldarriean abiatuko den manifestazioarekin. Mobilizazioak aldarriaren izen bereko egitasmoan du jatorria. Apirila hasieran aurkeztu zuen, euskararen egoerarekin kezkatuak dauden gazte euskaltzale talde batek.

“Herri bultzada” emateko deia

Gogora ekarri zituzten, azken aldiko euskararen aurkako erabakiak, euskaraz ikasteko eskubide urraketak, erabileran izan den estankamendua... Euskarak herri bultzada



Zubietako Eskolako kideek larunbateko manifestazioarekin bat egiteko ateratako argazkia.

berri bat behar duela diote, euskaldun gisa bizi, euskara normaldu, hizkuntza eskubi-deak errespetatu eta “finean, Euskal Herri

euskalduna izateko”. Larunbateko manifestazioan, “urrats erraldoia ematera gonbidatzen ditugu euskaldun guztiak”.

Laburrean

Intzidentzia gorantz

Aurreko 3 asteetan 276,60koa izan os-tean, 374,23raino igo da koronabirusaren intzidentzia. 17 kasu berri hauteman ditu Osasun Sailak udalerrri honetan. Aurrekoan baino 11 kasu gehiago. Positiboek gorantz egin arren, ospitaleratu kopuruak baxua izaten segitzen du.

200 izen-emate Udajolasen

Plaza guztiak beteta itxi dugu Udajolaseko izen-ematea. 200 inskripzio izan dira, denak onartuak. Uztaillaren 4tik 29ra antolaturiko ekimenari buruzko xehetasunak, ekainaren 21ean 17:00etan Sutegiko auditorioan Udalarekin batera deitu dugun bileran.

Kantu-jira

Martxo amaieran itzuli ziren plazara abestera. Usurbilgo Kantu Taldekoak hileroko kantu-jira berreskuratu dute. Datorrena, maiatzaren 28an eguerdi partean. Ez ahaztu kantu-liburuxka. Asoteleheneroko entsegu saioak, 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

noa.ua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noa.ua.eus /// www.noa.ua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.ua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noa.ua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Iruñearekin, Zaragozarekin edo Burgoarekin alderatuta, nahiz eta atzerapen handiarekin, Euskadik musulmanak lurperatzeko hilerrietako espazioen egokitzapena bizkortu du pandemia garaian. Duela gutxi aurkeztu dira Donostian, Tolosan eta Elgoibarren hilobiak jartzeko akordioak eta hilabete batzuk lehenago hartu ziren antzeko neurriak Gasteizen eta Arrigorriagan, eta urtea bukatzerako kanposantu horiek irekitzea espero dute.

“Gauza askotan aitzindariak gara, baina horretan oso atzeratuak gindoazen”, dio Ahmed Zanutti, Gasteizko eta Euskadiko komunitate musulmanaren ahotsik ezagunenetakoa. “Hogeitaka urte daramatzagu hau eskatzen”, azaldu du Zanutti. Pandemiaren hasieran, agerian geratu zen euskal kanposantuetan erritu musulmanez ehorzketak egiteko aukerarik ez egoteak sortzen zuten arazoa.

Horrek guztiak kezka handiko egoera sortu zuen Euskadiko komunitate islamikoetan. 2016an 51.654 musulman zeuden Euskadin, horietatik 10.000 espainiarrak dira. Helburua herri bakoitzean dauden aukera zehatzak ikuspegi tekniko eta materialetik aztertzea izan da. Eta epe motzean, eskualde bakoitzean erritu musulmanaren arabera ehorzketak egiteko lekua izango duen hilerri bat egotea da desiragarria. Bingen

Musulmanak duintasunez hilobiratuak



Derioko hilerri musulmana.

LUIS ARANALDE

“Neurrigabeko errespetua zor diegu beste erritu klase batzuk burutzen ditugunok”

Zupiriak onartu du “euskal gizarte gero eta anitzagoari errealitate erlijioso eta kultural berri bati erantzutea tokatzen zaiola”.

Hilerrietako arazo honi erantzun egoki bat emateko ADOS batzordeak egin du lan ugari. Aholku batzorde hau lanean ari da buru-belarri komunitate islamikoekin. 2018ko apirilean sortu zen. Batzorde honek berehala heldu zion gai honi eta hainbat udalekin harremanetan jarri zen, premiazko konponbidea ahalbidetuko zuen alternatiba bat aurkitzeko.

Lursail horiek musulmanen erritu ehorzketak bat egin ahal izateko bete behar duten baldintza nagusia hilobiak ekialdera begira egotea da. Oinarri horrez gain, islamaren berezko errezoak eta ehorzketak errituak garatzen dira, hala nola, gorputza alde erdira egokitzea, hilkutxan lurra sartzea eta aurpegia Mekarantz (Saudi Arabia) begira jartzea, Meka baita musulmanentzat hiri santu nagusia, han jaioa zen eta Mahoma. Hilobiratu aurretik gorputza garbitu egiten dute. Hildakoaren sexu bereko sendikoren batzuk arduratzen dira lan horretaz.

Garbitu ondoren, gorputza hil-oihal batean biltzen da. Oihal zuria da, josturirik gabea, Mekako erromesek janzten dutenaren antzekoa. Hileta zeremonian gizonezkoek bakarrik parte har dezakete. Gure erresponstuen

antzeko hil otoitzak egiten dituen iman batek zeremonia amaitu ondoren. Gorpua erraustea debekaturik egon da euren artean, orain arte behintzat.

Aurkeztu berria izan da Elkarbizitzarako Manifestua. Bertan izan zen Urkullu Lehendakaria. 39 imanen (Islamean apaiz gisako arduradun erlijiosoa) aurrean hitz egin zuen. “Printzipio eta konpromiso berdinak konpartitzea da Batzorde horren helburua”. Eta jarraitu zuen: “hiritar guztiek dute diskriminaziorik gabe bizitzeko eskubidea, batez ere, kultura edo erlijio arrazoiengatik. Gizarte guztiak dira anitzak eta aurrerapenaren eta libertatearen sinonimo izan behar luke pluraltasun horrek. Pluraltasun hori harmonizatzea datza hain zuzen, herri baten handitasuna”.

Pauso handia eman da Euskal Herrian musulmanek beren hilen kultura euren tradizioei jarraituz praktika dezaten. Judaismoa edo kristautasuna bezalako erlijio transzendentetako batzuetan den bezala, Islamean heriotza betiereko bizitzarako urratsa da. Eta islamiarrentzat hileta erritua beren bizitzako gertaera nagusietako bat da. Horregatik, neurrigabeko errespetua zor diegu beste erritu klase batzuk burutzen ditugunok. Bakearen bila ibiltzea da ADOS batzordearen helburua, “bakea baita elkarbizitzaren oinarria”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

GAR

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

26 lanpostu, Udalaren Lan Eskaintza Publikoan

Ezinbestean bete beharreko Espainiako Egonkortze Legea tarteko, Usurbilgo Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 26 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoa onartu du, helburu argi batekin; “administrazio publikoko lanpostuen behin-behinekotasun tasa jaisteko”, Udaletik berri eman dutenez. Udalak 2024. urtea amaitu arteko tarte du, prozesu guztiok amaitzeko.

Edonor aurkez daiteke

Lehiaketa-oposizio bidez edo meritu lehiaketa hutsez bideratuko diren deialdiotara “edonork aurkeztu ahal du”. Hain zuzen, Udaletik argitu dutenez, “egonkortuko direnak lanpostuak izango dira, eta ez gaur egun horiek betetzen ari diren langileak: lanpostu bat urte luzetan bete duen norbaitek lana galtzeko arriskuan egon badago”.

Egoera honetan, deialdi honen berri emateko apirila



Udal langileen batzarra Sutegin. Argazkia: Usurbilgo Udal.

UDAL LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

“Egonkortuko direnak lanpostuak izango dira”

amaieran udal langileek Sutegin eginiko batzarrean lege honek eragiten duen “ziurgabetasuna” nabarmendu zuten, duten informazio falta. Udal-gobernu taldeko kideek eta udal langi-

leek orain arte adostasun giroa egon dela eta adostasunerako borondate politikoa izan dela azpimarratu dute. “Bide berdietik jarraitzea” espero dute.

Kirol teknikaria

Hautaketa prozesurako izena ekainaren 3ra arte eman daiteke udal-erregistroan edo usurbil.eus atariko “Zerbitzu Telematiakoak” atalean.

Gorantz berriz

Otsailetik martxora 6 langabetu eta martxotik apirilera beste 7 gehiago zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak Usurbilen, 210 guztira. Aurreko bost hilabetetako beheranzko joera hautsi dute datuok. Apirilean eskualdeko gainerako udalerrietan eta Gipuzkoan langabetu kopuruak beherantz egin du. Kontratazio datuei dagokienez, 243 kontratu erregistratu ziren apirilean Usurbilen. Haietatik 176, aldi baterako. Hitzartutako kontratu kopuruari begira jarrita, 152 lan kontratu gizonetzkoenak izan ziren, “87 + < 5” emakumezkoenak.

Ika-mika

Andatza Eguna

Eskerrak eta animoak egun hori antolatzen lan egin duzuenoi.

Horrelako ekintzak dira herri gintzan aitzindari.

Usurbildar bat

Ika-mika

Larrialdia, Aurrera Gttunk

Azken hilabeteetan pertsonak jasaten ari garen gertaerak, Gizarte Larrialdi egoera batean gaudenaren adierazgarri argiak dira, egungo eredu ekonomiko kapitalista eta patriarkalaren Zibilizazio Krisiaren testuinguruan.

Gure senideentzat, oro har, eta gure seme-alabentzat, oinarrizko beharrak ezin bete ahal izateko arriskuaren kezka, ukaezina da.

YouTubeko bi erreportaje gomendatzen dizkizuegu: Aitor Iruzkietaren “La Cruda Realidad” eta “Comparecencia de Antonio Turiel en el Senado”.

2020an, Usurbilgo Udalean mozio bat aurkeztu zen bi

proiektuekin, Elikaduraren Autohornikuntzarako bata, eta energia iturri berriztagarrietatik modu zentralizatuan sortzeko bestea. Bi proposamenak Usurbilgo Udalbatzak baztertu zituen. Joan den apirilaren 27an berririo Udalbatzara eramane dugu mozio hori.

Gurea dugun autoantolatze-ko gaitasuna, eta gure bizitzaren agintea gure kontrolpean edukitzearen sentsazioa, biak berreskuratzeko beharra ikusten dugu. Horregatik, Aurrera Gttunk proiektua martxan jartzea proposatzera gatoz. Lan -Taldea hauek osaturiko proiektu bat da: 1. Elikadura, 2. Energia, 3. Ura, 4. Osasuna,

5. Hezkuntza eta 6. Kultura.

Jakitun gara proiektu honen lan ildo hauek gauzatze-ko, tokiko-alderdi ikuspegia behar dela. Horregatik, nahi duen eskualdeko edozein pertsonak parte hartu ahal izango du aipatutako Lantaldeetan. Horretarako, aurrera-gttunk@protonmail.com posta elektronikoaren bitartez izena eman besterik ez duzu egin behar. Izen emate epea, datorren ekainaren 15era arte zabalik izango da.

Gure sinesmen sistemak eta gure oraindainoko printzipio gidariak, zalantzan jarri behar ditugu. Bizitza, printzipio ekonomiko kapitalisten gainetik

jarritz. Aukera paregabea dugu gizartea birformulatzeko, gureak diren kultur balioetatik abiatuz, Herri gisa gure sustrai berriak osatzeko.

Aurrera Gttunk proiektuak herri mugimendu kulturala izan nahi du, bizi dugun krisiari irtenbidea emateko. Proiektuaren izenak, 2015eko Kilometroen antolakuntzan sortu zen elkarlanari eta horren atzean Amon-Aitonek, eta Ama-Aitek mugarri historiko izan ziren ikastolei keinu egiten dio. Harro gauden herri autoantolakuntzaren adibide ederra. Orain guri dagokigu!

Bizitza-Usurbil

Andoni Loiti: “Familia eta lagunak ahalik eta gertuen izaten saiatzen naiz”

Bost urte daramatza Andoni Loitik Parisen bizitzen, eta ia hamaika etxetik kanpo. Frantziara eraman du lanak eta bertan gustura badago ere, Usurbil bihotzean darama. Badaki momenturen batean etxera itzuliko dela. NOAUA!rekin partekatu du esperientzia.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Parisera?

Andoni Loiti: 18 urterekin unibertsitate ikasketak egitera Madrilera joan nintzen ingeneritza aeronautikoa egitera. 4 urteren ondoren, behin gradua amaituta, masterra kanpoan egiteko aukerari heldu nion. Erasmus egin nahi nuen gazteagotan, baina masterra kanpoan egiteko aukera izanda, aukera hori hartu nuen. Frantziako Tolosan egin nuen masterra urte eta erdiz. Ondoren, praktikak egiteko aukera izan nuen Parisen Air France enpresan. Nire ametsetakoa bat hegazkin konpainia batean lan egitea zen, eta beraz, bi aldiz pentsatu gabe Parisera etorri nintzen. 2017ko maiatzetik Parisen bizi naiz. Praktikak egin nituen enpresan 6 hilabetez eta gero, lan kontratua eskaini zidaten bizi osorako. Oraintxe bost urte egin dira bertan bizi naizenetik.

Gustuko lana duzu, beraz.

Oso gustura nago lanean. Gustatzen zaidana egiteko aukera



“2017ko maiatzetik Parisen bizi naiz. Praktikak egin nituen enpresan 6 hilabetez eta gero, lan kontratua eskaini zidaten bizi osorako”.

ANDONI LOITI

“Nire ametsetakoa bat hegazkin konpainia batean lan egitea zen, eta beraz, bi aldiz pentsatu gabe Parisera etorri nintzen”

dut eta hemengo bizimoduaz disfrutatzen ere ari naiz.

Euskalduna bezain frantsesa zaitugu dagoeneko?

Ez, ez. Euskalduna beti euskaldun. Askotan itzultzen naiz etxera. Hegazkina maiz hartzen dut merke eskaintzen didatelako, eta hilabetean behin edo asko jota bi hilabetean behin etxera itzultzen naiz. Sustraiak sendo mantendu behar dira, eta familia eta lagunak ahalik

eta gertuen izaten saiatzen naiz. Inguruan ikusten ditut nazionalitate bikoitza eskatu duten lankideak eta lagunak. Askotan galdetzen didate nik zergatik ez dudan gauza bera egiten, baina ni euskalduna naiz eta ez dut frantsesa izateko inolako beharrik.

Euskal gizartean ohikoa da bizilagun frantsesei errezeloz begiratzea?

Etxera itzultzen naizenero lagunek frantsesak horrelakoak direla gogorarazten didate. Frantsesak denetarikoak dira leku guztietan bezala, baina Tolosan nahiko irekiak dira, izaera mediterranearragoa dute. Paris beste mundu bat da. Oso hiri handia da eta iparraldean kokatuta dago. Orokorrean nahiko harropu-

tzak dira, hori onartu beharra dago. Hala ere, lanean lagunkoienekin elkartzen naiz, bihotz oneko jendearekin. Biztanleriaren zati handi bat nahiko berezia da, harroputz ikuspuntu horretatik, zu baino gehiago izango balira bezala. Nik, ordea, badakit nor naizen eta sobera dakit haiek ez direla ni baino gehiago.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarriketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

“50 urterekin ez dut neure burua Parisen ikusten”

NOAUA! Gaur egun telelana oso ohiko bilakatu da eta jende askok egiten du etxetik lan kanpoko enpresentzat.

Andoni Loiti: Gaur egun, telelanaren garapenarekin ondo ikusten dut etxetik lan egite

hori eta gaur egun daukadan lana mantenduta, astean behin Parisera etortzeko aukera ere azter nezake. Biarritz edo Bilbotik zuzenean Parisera etor gaitezke, eta ez da arazo handirik. Lankide batzuk


badituzte horrelako bizimodua daramatenak Espainiatik edo Frantzia Hegoaldetik lan egiten dutenak, bertako klima eta bizimodua nahiago dituztelako. Oraindik gaxtetzat naiz eta Parisez disfrutatzeke aukera

badut oraindik, baina aukera interesgarria izan liteke. Buruan daukadan ideia bat da. 50 urterekin ez dut neure burua Parisen eta bizimodu honekin irudikatzen inondik inora ere.

“Bi urteren buruan nahikoa txukun hitz egiten nuen frantsesez”

NOAUA! Parisen lan eginda, frantsesez hitz egitea garrantzitsua izango da.

Andoni Loiti: Niri hizkuntzak beti gustatu izan zaizkit. Umetan ingelesa ikasten aritu nintzen gurasoek bultzatuta. Behin Madrilén, ingeleseko titulua atera nuen. Madrilén azken urtean nengoela, frantsesa ikasten hasia erabaki nuen etorkizunean nora joango nintzen oraindik ez nekienean. Frantsesa ikastea erabaki nuen Frantziako muga gertu daukagulako eta hizkuntzak jakitea beti da ona. Gainera, guk gazteleraz hitz eginda, erraztasun gehiago ditugu ikasteko. Ikastolan ere zertxobait egin nuen DBHn, hautazkoa zenean. Batxilergoan, ez dakit ziur urtebetez edo biz egin nuen, baina usurbildar talde batek frantsesa ikasten genuen. Irakasle bat geneukan frantsesez oso ondo egiten zuena, urte pare batez Frantzian bizi izan zelako. Garai hartan, oso-oso frantses gutxi nekien eta oso oinarritzakoa. Ondoren, hiru urtez ez nuen frantsesik ikasi. Madriléko azken urte hartan, Tolosan ikasteko aukera atera zitzaidan. Ordurako, oinarri txiki bat sortuta neukan. Gurasoekin halako erabaki bat hartu nuen; haiek masterra ordaintzen bazidaten, nik frantsesa ikasi beharko



“Oraindik ere, ahoskeran antzematen zait ez naizela Frantziakoa, baina tira....”.

ANDONI LOITI

**“Masterra amaitzean,
Air Francen lan egiteko
probak egin nituen”**

nuen. Astean bitan akademia batera joaten nintzen ordu eta erdiko klaseak izaten nituen.

Bizi nintzen lekutik nahiko urrun zegoen akademia, nahiko gogorra egin zitzaidan atzera eta aurrera ibili behar hori. Hala ere, izugarri ikasi nuen. Txukun idazten ikasi nuen, hori baitu frantsesak zailean, behar bezala idaztea.

Frantzian ingeles maila ere,

agian, ez da Europako altuene-takoa.

Hasieran, frantsesekin hitz egiten hastea zaila da, izan ere, haiek beti frantsesez hitz egin nahi dute eta ez ingelesez. Beraz, nire frantseseko mailak hohera egin ahala, bertakoe-kin komunikatu eta lagunak egiteko aukera ederra izan zen. Mintzatzen hasita eta norekin hitz egin izanda, askoz azkarragoa eta gehiago hobetzen da. Bi urteren buruan nahiko txukun hitz egiten nuen frantsesez. Ikasketak ingelesez egiten genituen, bost frantses kenduta gainontzeko guztiak kanpotarrak ginen. Hala ere, masterra amaitzerako neukan maila politarekin Air Francen lan egiteko probak egin nituen, guztiak frantsesez. Nahiko ongi moldatu nintzen eta ez zidaten inolako arazorik jarri hizkuntza dela eta. Lanean, Herbeeretako jendea ere badago enpresaren “anai-arrebak” direla eta, baina orokorrean, lana frantsesez egiten dut. Onartu beharra daukat lehen ingelesez maila gehiago nuela, baina orain alderantziz dela. Ingelese egitea tokatzen zaidanean, gehiago kostatzen zait komunikatzen frantsesez baino. Oraindik ere, ahoske- ran antzematen zait ez naizela Frantziakoa, baina tira.

“Bizitza normalago bat bizi nahiko nuke”

NOAUA! Lan kontratu on bat duzu, beraz, han geratuko zara denbora luzez edo etxera itzuliko zara lana utzita epe luze edo ertainean?

Andoni Loiti: Ama beldurtuta daukat gai horrekin. Beti esaten dit badakiela ez naizela sekula itzuliko, baina kontratu mugagabe honek niri ez dit suposatzen. Kontratua hor dago, eta oso ondo dago,

baina nik beti esan izan dut kanpoan esperientzia bat bizi nahi nuela jendea, bizimodu eta kultura berriak ezagutze-ko. Jada bost urte daramatzat hemen, baina ez dut uste nire lan-ibilbidea hemen amaituko denik. Euskal Herrian lana izango nuke nire sektorean eta ez nago batere itxita hemen geratzera. Lehen lagunei esaten nien 30 urte izaterako etxean

izango nintzela, orain 28 ditut. Egia esan, ez dut neure burua bi urtetan etxean ikusten, baina bai familia bat sortzeko momentua edo halakoren bat suertatzean, ez dut neure burua Parisen ikusten.

Bizimodu oso berezia da hemengoan, hiri handikoa eta mugimendu handia dago, estresa ere bai horri lotuta, eta nik beste lasaitasun bat izan

nahiko nuke, behin bizitza aurrera doan heinean. Ez dakit zehazki nire itzulera Usurbilera izango den, Donostiara edo Bilbora. Euskal Herrira itzuli nahiko nuke eta gertu izan familia eta lagunak. Umetatik sortu ditudan loturak galtzeko inolako asmorik ez daukat eta bizitza normalago bat bizi nahiko nuke.

Txalaparta plazaratuko duen kultur zikloa, maiatzaren 26tik 28ra

Txalapartaren bueltako kultura plazaratzen dihardu Jexux Artze Kultur Elkarteak. Eskola zabaldu zuten iragan udazkenean, eta kaleratze horretan urrats berria emango dute orain; 1. Txalaparta Festa prestatu dute.

Txalaparta eskola abiarazi zenuten udazkenean, instrumentua plazaratzeko asmoz. Hurrengo asteburuko festa ere ildo berean kokatu daiteke?

Jexux Artze K.E.: Proiektu oso baten moduan planteatu genuen txalaparta eskolarekin hasi ginenetik; batetik, klaseak izatea instrumentua jotzen ikasteko eta txalaparta kalera ateratzea, eta izan duen karga historikoaren transmisioa ere egin nahi genuen. Beti ibili dugu buruan hezkuntza arautuan txalapartaren historia eta instrumentuaren inguruko ezagutza transmititzea eta dena batera egiteko aukera ikusi dugu Txalaparta Festarekin. Batetik, ikasitakoa plazaratzeko eta ikastolako gazteei erakutsi eta irakasteko. Gainera, Jexux Artze hil zeneko 20. urteurrenarekin egokitu da.

Zer moduzkoa izan da Txalaparta Eskolaren lehen ikasturtea?

Plazaratze honek goizegi ha-



Maiatza amaierako festarekin, txalapartaren ezagutza eta erabilera sustatu nahi du Jexux Artze Kultur Elkarteak.

JEXUX ARTZE K.E.

“Usurbilen bada ekimenak antolatzeke prestasun hori, txalapartaren bueltan. Lehen zuen garrantzia berreskuratzea nahi genuke”

rrapatu gaitu eskolan, hasi egin baikara. Bizpahiru urte barru ikasleak trebatu ahala, gauza gehiago egingo ditugu.

Zein da ikasleen profila?

Adin ezberdinak jendea

dabil. Halere, antolatzaile moduan adin tarte gehiagoko ikasleak hartu nahi genituzke. Edozein unetan hasi daitezke. Baten batek ikasturte amaiera honetan probatu nahiko balu datorren ikasturtean hasteko, horretarako aukera egongo da.

Eskola txalaparta kaleratzeko zubi gisa ikusten duzue?

Lehen jaietan edo bestelako ekintzetan beti berdinei deitzen zitzaizen txalaparta jotzeko. Ekitaldi askotan txalaparta behar izaten da baina txalapartaririk ez zegoen. Beste lekuetan be-

zala, asmoa txalapartari taldea handitzea litzateke.

Harrobi bat sortu.

Usurbilen bada ekimenak antolatzeke prestasun hori, txalapartaren bueltan. Lehen zuen garrantzia berreskuratzea nahi genuke. Ez gara konturatzen baina Usurbil Euskal Herri mailan erreferentziazko herria izan da txalapartari dagokionean. Gure erronka berriro zabaldu, jendeak ezagutu, harrobia egin eta ekitaldietan parte hartzeko txalaparta jotzeko gaitasuna duen jendea egotea da.

Jaialdi partehartzaile eta didaktikoa

NOAUA! Txalaparta Festan islatuko dituzue zuen erronkak. Jaialdi parte hartzailea izango da.

Jexux Artze K.E.: Egungoek nahiz ikasten aritutako herritarrek edota beste herri batzuetatik etorritakoak, animatzen denak jotzeko aukera izango du. Txalapartarekin adarra jotzea lotuta egon da beti.

Adar ezberdinak jarriko dira jendearen esku, jotzen ez dakienari irakatsiko diogu. Usurbilen badaude adarra jotzen dutenak, adar-egilea ere badago. Trikitilariak gidatu eta sagardoa txorizo egosiarekin banatuko dugu.

Ikastolarekin ere transmisioa landuko duzue.

Kontzertu ahalik eta didakti-

koena egin nahi da. Azalpentxo bat eman, herrian zer izan den txalaparta, zer pisu izan duen azaldu, baina batez ere txalaparta erakutsi eta probatzen utziko zaie. DBH4-koekin egitea da asmoa.

Jexux Artze ere omenduko duzue. Nola aurkeztuko zenioke belaunaldi berriei?

Txalaparta berreskuratu zuten Artze anaiek. Galtzear egon zen musika instrumentua berreskuratu, irakasteko metodoa asmatu eta beste dimentsio batera eraman zuten txalaparta Artze anaiek. Bi eskola zeuden soilik, Hernani eta Usurbilgoa. Ahalegin horri esker txalaparta ez zen desagertu.

Jexux Artze omenduko dute, bere heriotzaren 20. urteurrenean

Txalapartaren bueltako kultura plazaratuko duten ekintzen zikloa iragarri du Jexux Artze Kultur Elkarrekin maiatzeko azken astebururako. Transmisioan eragiteko ikasleekin tailerra, zaletuak eta instrumentu hau jotzen dabiltzanak edo aritu direnak biltzeko hitzorduak, baita Usurbilen eta heritik kanpo erreferente ditugun Artze anaiak gogora ekartzeko omenaldia ere. Txalapartari eskainiko asteburua, hilaren 26tik 28ra.

Lehen Txalaparta Festa

Maiatzak 26, osteguna

■ 19:00 "Txalaparta eta txalapartariak" hitzaldia Sutegiko



Txalapartarekin esperimentatzeko aukera eskainiko du Jexux Artze K.E.-k.

auditorioan.

Hizlaria: Juan Mari Beltran Argiñena. Euskal Musikaren Txokoa.

Maiatzak 27, ostirala

■ Txalapartari buruzko tailer

didaktikoa, Udarregi Ikastolako ikasleekin.

Maiatzak 28, larunbata

■ 11:45-14:00 Herri erromeria, Mikel Laboa plazan:
-Adar deia.

-Txalaparta eskolako ikasleen emanaldiak.

-Txalaparta irekia (txalaparta eta adarra jotzen ikasteko ikastaro azkarrak eta adar ugari jotzeko aukera).

■ 14:30 Bazkaria Artzabalen. Txartelak 18 euroan salgai Artzabalen eta Lizardin, maiatzaren 24ra arte.

■ 18:00 Jexux Artzeri omenaldia Dema plazan (20. urteurrena).

■ 18:45 Kontzertuak: Kimu Txalaparta eta Hutsun Txalaparta Taldea.

■ Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarrekin.

■ Babeslea: Usurbilgo Udala.

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako Foru Alandua
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai

Eneko Furundarena: “Oso denbora laburrean aldaketa handi bat bizi izan dut”

Umetan gustukoa zuen pilotan eta futboleko ibiltzea. “Egia esan, eskubaloian ez nintzen batere ibiltzen”. Eskola Kirola bidez hasi zen eta orain, 18 urterekin, elitean ari da. Onenen pare. Bidasoa Irun eskubaloia taldeko jokalaririk gazteenetako bat da eta etorkizun oparoa du aurretik.

NOAUA! Denbora eta energia asko eskaintzen diozu eskubaloari. Astero, zenbatetan entrenatzen duzue?

Eneko Furundarena: Konpromiso handia eskatzen du horrelako talde batean egoteak. Normalean egunero joan behar izaten dut Irunera. Partiden araberakoa da entrenamenduen maiztasuna, baina berez egunero izaten dugu entrenamendua. Horrez gain, gimnasioko denbora ere izaten dugu eta partidak prestatzeko bideo saioak ere bai. Konpromisoa handia da, baina gustura egiten diren gauzak direnez, ondo daramat.

Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra dago, ezta?

Nire lagunak baino aukera gutxiago izaten dut ateratzeko. Saiatzen naiz neure helburuak jarraitzen, eta badakit zaindu



“Bidasoa Irunen moduko talde batean egoteak konpromiso handia eskatzen du”.

ENEKO FURUNDARENA

“Lehen egunean Julen Aginagalde hurbildu zitzaigun, umil-umil, bere laguntza eskaintzera”

eta atsedean hartu behar dudala. Ez zait asko kostatzen gainera, onartuta daukadan zerbait da. Nire lagunak parrandan dauden bitartean, nik etxera joan behar dudala badakit. Hurrengo egunean partidara ere gustura joaten naiz eta entrenamenduko beste gauza batzuk bilatzen

saiatzen naiz.

Elikadurari dagokionean, zaintzen saiatzen naiz, baina ez pentsa ezer berezirik egiten dudunik. Umetatik elikadura egoki bat izan dut. Beste batzuk supermerkatuan litxarreriak erosten dituzten bitartean, ni saiatzen naiz ahalik eta ondoen jaten eta litxarreriak ekiditen.

Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure kirol jarduerak?

Pandemiak eragina izan du, zalantzarik gabe. Gehienbat iazko urtea izan zen gogorrena

guretzat, ikuslerik gabe jokatu behar izan zuten ondorioz. Ohituta gaude harmailetan beti jendea izaten eta isiltasun sententzia hori arraroa egiten zitzaigun; inor ez begira, inor ez animatzen...

Normaltasunera itzultzen ari garela esan daiteke. Entrenamenduei dagokionez, batzuetan etxean egotea tokatu izan zaigu taldekideen bat kutsatu egin delako, baina orain, txertaketarekin lasaigo gaude denok. Oraindik ez gara erabateko normaltasunera itzuli, baina duela hilabete batzuk baino lasaixeago gabilta.

“Bidasoa Irun taldeko aldagela oso harreman ona daukagu”

NOAUA! Noiz egin zenuen eskubaloia alderatu?

Eneko Furundarena: Umetan, pilotan eta futboleko aritzen nintzen. Eskubaloia ez nuen ezagutzen eta ez nintzen batere ibiltzen horretan. Eskola Kirolaren bidez ezagutu nuen eskubaloia. Gero, pilota pixka bat baztertu eta futboleko zein eskubaloian sartu

nintzen burubelarri. 14 bat urterekin ez nintzen partida guztietara iristen eta erabaki beharra neukan bietako zein-tan jarraitu. Bidasoa Irunek ordurako interesa erakutsi zuen eta haien eskaintza entzun eta gero, eskubaloia alderatu egitea erabaki nuen. Aukera ona egin nuela esan dezaket orain.

Bidasoa Irun taldeko jokalaria zara orain. Lehiakortasun handia dago ala lagun giroan entrenatzen al duzue?

Lehiakortasun puntu hori badago, baina esango nuke gure arteko adiskidetasuna garrantzitsuagoa dela. Lehiakortasuna dago geure burua hobetu eta besteak baino hobeak izaten saiatzeko, baina kanpotik na-

bari den bezala, gure aldagela oso bateratuta dago eta oso ondo konpontzen gara. Arazoren bat dugunean, normaltasun osoz hitz egiten dugu.

Denboraldiko lehen entrenamenduan adibidez, Julen Aginagalde bera gazteongana hurbildu zitzaigun, umil-umil, zernahirako hortxe zela, laguntzeko prest.

“Eskubaloï taldeen artean laguntasun giroa da nagusi”

NOAUA! Eskubaloïaren munduan giroa sana da ematen du. Hala al da?

Eneko Furundarena: Nik uste eskubaloïak ez daukala zerikusirik futbolekin ikusten ditugun irudi batzuekin. Gure taldeetako jarraitzaileek harreman ona dute. Beste taldeetan ere giro hori nagusi da, laguntasun giroa, eta zaletuen artean ere berdin gertatzen da. Kanpoko norbaitek partida ikustera etorri nahi badu, gure zaletuekin harremanetan jarri eta sarrerak eskaintzen dizkiete eta erraztasun guztiak ematen zaizkie. Zaleen arteko harreman hori ahalik eta onena izaten saiatzen gara. Badago elkar pika-tzeko ohitura hori, baina oso modu sanoan eta inongo indarkeriarik gabe.

Beterano askoren ondoan zaudete, tartean, Julen Aginagalde bezalako izar batekin. Erraza izan al zen egokitzapena?

Oso denbora laburrean al daketa handi bat bizi izan dut. Arraroa egiten zitzaidan beraien taldekide izango nintzela pentsatzea, aldageletan, bidaletan eta abar. Baina oso azkar egokitu gara... 18 urteko gaztetxoa horrelako aldagelara sartzea aldaketa handia da eta haiek ere badakite hori. Saiatu dira gu ere taldearen baitan onartuak izaten.

Dohain bereziak dituzu eskubaloian aritzeko baina pres-taketa lana ere oso inportantea izango da. Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek?

Oso paper garrantzitsua izan dute. Haiek gabe ez nintzen honaino iritsiko. Gaitasunak izatea garrantzitsua da, burua bere tokian izatea bezain beste. Eguneroko lana ere egin behar da, egunero hobetzeko saiakera eginez. Anbizioa ez



Eneko Furundarena, Bidasoa Irun taldeko entrenatzaileari adi.

ENEKO FURUNDARENA

“Usurbil KE taldean ondo ari dira lanean, bai umeeekin eta baita gazteekin ere”

galtzea ere ezinbestekoa da, askok segituan amore ematen baitute. Hala ere, jakin behar da neurria hartzen. Entrenatzaileek hori dena erakutsi didate orain arte, bai Usurbilen eta baita Bidasoan ere.

Hemendik kanpo, Usurbil KE eskubaloï taldeak prestigioa duela dirudi.

Usurbilgo Eskubaloï Elkartek erakutsi du bere lana ondo egiten duela. Herri txiki bat gara, baina izena ematen dutenekin lana ondo egiten saiatzen dira eta ahal duten neurrian hobetzen. Usurbilek fama ona du horregatik, jokalarï batzuk elite mailara iritsi direlako. Ondo ari dira lanean, bai umeeekin eta baita gazteekin ere. Ondo pasatzeko helburua mantendu eta lana eginez, hobetzeko aukera horri bide ematen.

Eskubaloïtik bizi al daiteke bat? Zure kasuan, zer ari zara ikasten edo zertan ari zara lanean?

Kasuak eta kasuak daude, nik denetarik ikusi dut. Eskubaloïko soldatetik baino ez direnak bizi ezagutzen ditut, eta horrez gain, lan egiten dutenak ere ezagutzen ditut. Talde bakoitzaren egoera ere oso ezberdina da, eta jokalarï bakoitzaren eskaerak eta egoerak ere denetariok izan daitezke. Faktore askok eragiten dute horretan, baina Asobal Ligako lehenengo mailak bizitzeko beste eman dezake. Ez da futbolekin bezala, behin erretiratuta bizitza egina daukazula. Ikasketak ere behar dira behin eskubaloïa utzita.

Elitea uzten duzunean, kirol munduari lotuta ikusten duzue zure burua?

Momentuz behintzat baietz esango nuke. Oso kirolaria izan naiz txikitatik, beti izan dut kirolean aritzeko grina. Oraingo ikuspuntutik ere baiezkotan nago, gustatuko litzaidake kirolari lotutako zerbaïtetan lan egitea elitea utzi eta gero. Behin momentua iritsita ikusi beharko da egoera nolakoa den. Baina bai, gustatuko litzaidake. Ea lortzen dudan!

Laburrean

“Kirolari bat? Imanol Agirretxe”

1. Zenbaki bat.
7.

2. Kolore bat.
Beltza.

3. Kirolari bat.
Imanol Agirretxe.

4. Zurea ez den kantxa bat.
Futbol zelaia.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Toy boy.

6. Liburu bat.
Nur-en saga osoa.

7. Abesti bat.
Aldapan gora (Huntza).

8. Sare sozial bat.
Instagram.

9. Usurbilgo txoko bat hautatu ezazu.
Dema plaza.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Santixabelak.

11. Oporretarako toki bat aholkatuko diguzu?
Noja (Kantabria).

Erraustegia geratzeko martxa girotuak ez zuen helmugara iristerik izan

Erraustegia geratu eta Zubietako plantaz adierazten ez digutena azaleratzea zuen helburu, Errausketaren Aurkako Mugimenduak eragile gehiagorekin (Eguzki, Ekologistak Martxan, Donostia Bizirik eta Greenpeace) maiatzaren 14rako antolatua zuen martxa girotuak. “Erraustegia gelditu! Sistema aldatu, ez klima” aldarriean Lasarte-Oria eta erraustegiko sarbidea lotu zituen mobilizazioak. Bidean galdera nagusi bat planteatu zuten aldarri moduan; “zer gertatzen da erraustegian?”. Antolatzaileek galdera horri erantzun argia eman zioten martxaren amaieran; “ez digute esaten egia”.



Lasarte-Oriako erdigunea zeharkatu zuen musikaz giroturiko martxak. Irudi gehiago, noaua.eus atarian.

%65a birziklagarria

Besteak beste, zenbat CO2 isurtzen den, eskoriekin edota tximinietako filtroetako hauts toxikoekin zer egiten duten. Iaz 90.000 tona hondakin birziklagarri erre zituztela salatu zuten, erraustutakoaren %65a. Haietatik 60.000 tona organiko. “Gipuzkoako agintariak hondakinaren lobby-arekin elkar hartuta alferrik galtzen uzten dituzte primerako konposta egiteko balio duten gure hondakin organikoak”. Horregatik aipatzen dutenez, “herritarrei

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA “Ez elikatu erraustegi munstro hau”

ezkutatu nahi diete errealitatean sustatzen duten hondakinaren erdua xahutzailea dela. Energia diru publikoa eta herritarren osasuna alferrik galtzen dituenak”.

Esker ona adierazi zieten hondakinak egoki kudeatzen ari diren herritar, udal eta mankomunitateei. Gaizki

ari direnei arduratsu jokatzeari galdegin zieten. “Ez elikatu erraustegi munstro hau”, eskatu zieten. Agintariei Zubieta gaineko azpiegitura geratzea, alternatiben alde egitearekin batera. “Errespetatu itzazue gaurko eta biharko herritarren osasun eta ongizate eskubideak”.

Sarbidea itxita

Martxak ezin izan zuen aurreikusitako helmugaraino iritsi. Erraustegiaren sarbidean bidea itxi zieten parte hartzaileei. An-

tolakuntzak berri eman zuenez, erraustegi ondoraino joan ahal izateko baimena eskatua zuten. “Kontua da ez digutela erantzun”. Lehendik ere halako baimenak eskatutakoak dira eta “halako eskaerak egin izan ditugunean eta administrazioak erantzun ez duenean suposatzen da eskatutakoa ontzat eman dutela”. Kasu honetan ez zen hala izan; “hemen amaitzera behartzen gaituzte”. Txistu eta errausketaren aurkako oihuen artean, amaieraraino heldu ezinik geratu ziren.

Aurrera egin ezinik, erraustegirako sarbidean



Bide hesituaren parean amaitu zuten martxa girotua.



Erraustegia geratzeari eskatu zuen iragan larunbateko martxak.

Herrikideen arteko lehiatoki bizia, plazara itzuli den San Ixidro Eguna

San Ixidro Egun borobila ospatu zuten igandean herriko baserritarrek. Koldo Huegun herritarrek prestaturiko Lumagorri oilasko erreak jan, trikitixa entzun eta ondoren, Eli Pagola eta Beñat Gaztelumendi bertsolari eta aizkolariez osatutako herri kirol ekitaldia ikusteko aukera izan zuten ezin eguraldi apartagoarekin.



Lur Errekondo Sola estreinakoz Usurbilen harri-jasotzen.

Herritarren arteko lehia bizia
Aizkolaria eta harri-jasotzaileen probak ospatu ziren egunean zehar. Arratsaldekoa eguraldiagatik frontoian, plazan izan beharrean. Hitzordu guztiotan aurpegi ezagunak; herritarrek. Aipatzekoen artean, arratsaldeko Usurbilgo bi emakumeren, Lur Errekondo Sola eta Ane Zinkunegi Hernandezen erakustaldi bikaina, belaunaldi ezberdine-

tako Izetatar senideen parte hartzearekin batera. San Ixidro eguneko festa indartuta itzuli da.

Herri-kirolen emaitzak

Arrilla anaia aizkolarien erakustaldia

■ Enbor txikiaren mozketa saioa:
-Jon Esnal: 48 kolpe 1:17an.

-Haritz Esnal: 56 kolpe 1:30ean.

■ Enbor handiaren mozketa:
-Haritz Esnal nagusi, 20 segundu baino gehiagoko tar-tearekin.

Harrijasotze erakustaldia

Iraupena: 2 minutu.

■ Ane Zinkunegi Hernandez:
-Harri zilindrikoa: 21 altxaldi.
-Harri kubikoa (52 kg): 10 altxaldi.

-Harri esferikoa: 17 altxaldi.

■ Lur Errekondo Sola:

-Harri zilindrikoa (62,5 kg): 9 altxaldi 54 segundoan

-Harri kubikoa: 10 altxaldi.

-Harri baldarra: 4 altxaldi (1:21ean).

-Harri esferikoa: 10 altxaldi (53 segundoan).

■ Hodei Iruretagoiena, Izeta IV:

-Harri zilindrikoa (125 kg): 18 altxaldi 2 minutuan.

-Harri kubikoa (113 kg): 14 altxaldi.

■ Jakes Iruretagoienaren (Izeta V) pentatloi proba:

-Harri esferikoa: 10 altxaldi (1:04an).

-180 kiloko harria arrastaka luze bat egin zuen 3 minutu eta 20 segundoan.

-Enbor mozketa 7 minutu eta erdian.

-Txingekin bi luze eta 10 itzuli korrika frontoiari.

Herri-kirolek eta bertsolariek giroturiko eguna



Ane Zinkunegi Hernandez harri-jasotze saioan.



Izeta V, familiako kide gaztetxoak pentatloi proba osatu zuen.



Arrilla anaia, Haritz eta Jon Esnal anaia lehia bizian.



Eli Pagolak eta Beñat Gaztelumendik bertsuekin girotu zuten eguna.

“Bere egunerokoan pertsona bakoitza ziur sentitzea lehenesten dugu”

Ikasturte berrirako matrikulazio epea itxi berri duten honetan, Maider Ollokiegi Haur Eskolako koordinatzailearekin eta Nekane Alduntzin Udarregi Ikastolako HH-ko ikasketa buruarekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Haur Eskolak zer eskaintzen die bertara doazenei?

Bere egunerokoan pertsona bakoitza ziur sentitzea lehenesten dugu. 1-2 urteko hauraren kasuan segurtasun eremua familia da eta trantsizio bat egin behar izaten dute familiatik ikastolara. Bi mundu horien arteko zubia ahalik eta modu samurrenean egitea da gure helburua, bien arteko hausturarik egon ez dadin. Bide hori segurtasunez jorratzen bada, haur horrek bere hoberena emango du. Bide horren zaintzak bereizten gaitu, eta ume bezala osotasunean begiratuak izateak eta bere prozesu guztietan errespetatua izateak.

Zubi-lan horren abiapuntua zein da?

Egokitzapenean gurasoek aukera dute gela barruan egoteko. Egutero arbelean idazten da haurrek zer egiten duten, fitxa bat idazten diegu gurasoei, egutero hitz egiten dugu haiekin, bakarkako bi bilera egiten dira urtean...

Helburua, hauraren bi mundu-nak ahalik eta hobekien uztartzea izango da ezta?

Harreman handia sortzen da. Haurra ziur sentitzeko beste ezaugarrietako bat, Haur Eskolako ibilbide osoan erreferentziazko pertsona berdinak lan egitea, edota “ratioak” dira, alde horretatik oso egoera onean gaude. Aipatu baita, Haur Eskolak kalitatezko elikadura ekologikoaren alde egina duen apustua.

Haur Eskolako zikloa nola borbiltzen da?

Hauraren bizitzako lehenen-



Matrikulazio epea ireki bezperan, Haur Eskolan egin zuten ate irekien saioa.

HAUR ESKOLA

“Bidea segurtasunez jorratzen bada, haur horrek bere hoberena emango du”

go etapa da eta bakoitza den hori modu lasai batean bizi izate hutsa da guretzat haur batek Haur Eskola barruan izan dezakeen ibilbiderik onena; askatasun osoz datorrela eta den bezala agertu daitekeela ikustea. HH-ko 2. zikloarekin trantsizio bide bat egiten dugu baita; ikastolara bisitak, ekintzak batzuk batera antolatzen ditugu, bertako irakasleekin koordinazio lana... Horrez gain, lanketa pedagogikoa bera da: hauraren erritmo biologiko eta intelektuala errespetatzea, bere sormen eta ekimena bultzatzea, autonomiaren edota erabakitze gaitasunaren sustapena. Guretzat garrantzia handia du etapa honek pertsona baten garapenean.

Zer aldatua badugu haurrekiko dugun begiradan.

Eta horren gainetik norbera buruarekiko begirada,

bakoitza non gauden eta zer eskatzen diogun bizitzari. Haurra da protagonista, hori da Haur Eskolaren nortasunaren beste ezaugarrietako bat; haurrari berari egiten uztea, bere erritmoak errespetatzea, beregan sinestea. Haurra jartzen da erdigunean. Haurra bizirauteko gaitasun guztiekin jaiotzen dela ulertzen dugu. Gaitasun horiek garatzeko Haur Hezkuntzaren xedea, garapen osasuntsu bat bermatzea da. Bere ikasketa prozesuaren protagonista bera dela ulertzen badugu, helburu hori betetzeko zer baliabide eskaini behar dizkiogun; materiala, espazioa.. Helduaren funtzioa ere hor dago, batez ere haurrei konfiantza eta segurtasun bat eskaintzeko. Denbora ere kontuan hartu behar da; egokitzapen prozesuak, egunerokotasunaren kudeaketak nolakoa izan behar duen hauraren beharrak kontuan izanda. Besteak beste, jolasaren ordua, atsedeen edota elikadurarena. Beste alderdi bat, familia eta komunitatea. Elkarren beharra dugu, oso oso garrantzitsua da gure hezkuntza proiektuan, elkarren arteko konfiantza izatea. Eta eskola herrian kokatua

dagonez, herrira begirako elkar-lana sustatzea. Komunitatearekin lotuta, esaterako, asteazkenetan azokara jaisten gara, covid19-a heldu aurreko garaian hilero Egutuko Zentroko kideei bisita egiten genien, belaunaldien arteko lotura estutzeko. Liburutegira edota auzo desberdinetara ere askotan ateratzen gara.

Nola aldatu da familien errealitatea urteotan?

Ez da erraza. Lehen, haurren erritmoa errespetatzeak duen garrantzia aipatu dugu. Baina esaten dugun hori betetzea oso zaila da. Adibide argia egokitzapenarekin gertatzen dena da. Haurrak luzatzeko beharra izan dezake baina oso zaila da uztartzea gurasoek duten lan egoerarekin. Haurren atsedeen egunekin ere gauza bera gertatzen da, ez dago haurren mesedetan, gaixotzen direnean ere ikusten da ze zaila den alternatibak aurkitzea. Aiton-amonak hor gakoak dira. Horrez gain, presaka bizi gara baina gure erritmoak ez dira haurren erritmoak. Hala ere, Haur Eskolan dauden artean behintzat, haurrak ahalik eta ondoen egotea da gure helburua.

Matrikulatu kopuruak gorantz egin du Haur Eskolan

Nabarmen gehitu da 2022-23 ikasturterako Haur Eskolan matrikulatu den haur kopurua. Apirilaren 28tik maiatzaren 11ra bitartean bideratu zuen izen-emate kanpainaren baitan, 0-3 urte arteko 65 haur matrikulatu dira Kalezarren kokatua dagoen gunean. Iaz baino 17 haur gehiago, 48 izan baitziren izena eman zutenak. Hala jakinarazi diote NOAUA!-ri Haur Eskolatik bertatik.

Gurasotasun baimenak luzatzearen eragina

2-3 urte artekoen gelan, 11 haur berri izango dira irailetik aurrera. Egun bertan dauden beste 18 haurrekin batera, 29 izango dira guztira. 1-2 urte artekoen gelan 32; 21 berri, eta 11 egun Haur Eskolan daudenak. Kopuruotatik urrun da ordea, 0-1 urte ar-



48 haur izatetik 65 izatera igaroko da Haur Eskola, irailean abiatuko duten 2022-23 ikasturtean. Igoera nabarmena beraz.

HAUR ESKOLA

“0-3 urte arteko 65 haur matrikulatu dira Kalezarren kokatua dagoen gunean. Iaz baino 17 haur gehiago, 48 izan baitziren izena eman zutenak”

tekoen gela. 4 haur baino ez ditu izango hurrengo ikastur-

tean. Alde nabarmen honek zergatia badu eta Haur Eskolatik azaldu diote NOAUA!ri; aitasun eta amatasun bajeetan eman den luzapenak azaltzen du egoera.

Aldaketa honek haur jaioberrien kasuan Haur Eskolarekiko orain arte izan duten beharra aldarazi du. “Haurren begirada horretan bagoaz pauso batzuk ematen”, adierazi digute Haur Eskolatik.

Bardozekeo Xarnegu ikastolako bisita

Urte luzez Zuberoako ikastolak laguntzen aritu da Nafartarrak Kultur Taldea. Arrakastatsuak suertatu diren hainbat elkartasun kanpaina bideratu izan dituzte, beharrean diren herrialdeko bertako ikastolak lagundu eta euskararekin bizi duten errealitatea plazaratzeko. Tartean, Sohutako ikastolako gurasoek ekoiztako produktu goxoez hornituriko otarren salmenta. 11.000 euro bildu zituzten iazko kanpaina.

Seaskako ikastolen eta talde zein herri honen arteko hartueman berri baten abiapuntua izan daiteke, igande honetako, maiatzaren 22ko 39. Sagardo Egunerako programatua dutena. Lapurdiko Bardozekeo Xarnegu ikastolako kideak bisitan izango ditugu Usurbilen.

Seaskak iragan irailean inauguratu zuen ikastola berriko kideak. Aurretik, bertako haurrek kanpora joan behar izaten zuten euskaraz ikasi nahi bazuten. Ikastola honen errealitatea ezagutzeko aukera izango da beraz igandean.

Bisita eta kalejira

Goizeko 11:00etan Udarregi Ikastolaren atarian biltzeko hitzordua finkatu du Nafartarrak taldeak. Ipar Euskal Herriko bisitariei harrera egingo zaie eta elkarren berri izateko aukera izango dute Udarregi nahiz Xarnegu ikastoletako kideek.

Ordubete beranduago, 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko den kalejira antolatu dute. Usurbilgo herria ezagutzeko ezin egun egokiagoan datoz; bi urteko etenaldiaren ostean, erreferentziazkoena den herritarren jai egun estimatuenean.

Sardiniako kantu inprobisatua

Emanaldi berritzailei leku egitea xede duen Bertsozale Elkartaren “Bidaia” egitasmoaren eta “atzerriko kantu inprobisatuekin duen elkarlan esperientzia gehituta”, Sardiniako kantu inprobisatua antolatu dute Udalarekin lankidetzan, hilaren 19an 19:00etan Sutegein. Sarrerak 5 eurotan, bertsosarrerak.eus atarian izango dituzue eskuragarri.

Sardinieraz eta euskaraz

“Besteak beste, Dionigi Bitti eta Giuseppe Porcu cantadori sardinieraz eta Tenore Murales de Orgosolo taldeak eta Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariek hartuko dute parte”. Sardi-



Hitzak, musika eta irudiak tartekatuko ditu hilaren 19ko emanaldiak.

nieraz eta euskaraz ospatuko den 3manaldi honetan, “Remundu Piras Sardiniako poesia lehiaketetako cantadore han-

dienaren inguruan osatutako eta Paolo Pillonca kazetariak idatzitako omenaldi barregarria aurkeztuko dute”.

URDAIRA



Sagardotegia

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Larre-Gain Baserría Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.




Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

osasan neurri guztiekin

Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

2. Uxue Trail lasterketa solidarioan izen-emateko deia

Hilabete baino ez 2. Uxue Trail mendi lasterketa solidarioako. Bi helburu nagusi ditu, ekainaren 18rako iragarria dagoen hitzorduak; batetik, ekimenari izena ematen dion Uxue Martin herritar gaztetxoak duen gaixotasun arraroaren inguruko sensibilizazioa bultzatu eta ikerketarako laguntza biltzea. Horretan dihardu, gaixotasun arraro honen izena duen Phelan Mcdermid Elkar-teak, ikerketa sustatzen, informazio fidagarri eta eguneratua familien esku jartzen, laguntza komunitate bat eskaintzen...

Tratamendurik ez, sintomak arintzeko terapiak bai

“Phelan Mcdermid sindromea arrarotzat hartzen den gaixotasun genetiko bat da, 22 kromosomaren material genetikoaren galerak eta SHANK3 genearen gabeziak edo mutazioak zehazten dutena, eta kasu gehienetan espontaneoki gertatzen dena”. Horrek “hainbat arlotan garapen neurokognitiboaren atzerapena agertzea” eragiten du, “batez ere hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasunean”. Gutxi diagnostikatutako gaixo-



2. Uxue Trail lasterketa solidarioarako izena ekainaren 16ra arte eman ahalko da kronoak.com atarian.

2. UXUE TRAIL MENDI LASTERKETA

**“Phelan Mcdermid
sindromea arrarotzat
hartzen den gaixotasun
genetiko bat da”**

tasun honentzako tratamendurik ez dago, baina bai sintomak arintzen lagundu dezaketen terapiak.

Lau lasterketa solidarioetan izen emateko aukera

Eta horretarako laguntza behar dute. Hala, ekainaren 18rako 2. Uxue Trail lasterketa presatzen ari dira. Lau lasterketa

mota ezberdinen artean hautatu ahalko da: 20 kilometroko Uxue Trail Luzearen, 11,5 kilometroko Uxue Trail Motzaren, 7,5 kilometroko Ipar Martxaren eta 5,5 kilometroko Uxue Paseoaren artean.

Horrez gain, lasterketan zuzenean parte hartu gabe, ekimena diruz lagunduko duen dortsal solidarioa ere eskuratu ahalko da. Izena kronoak.com atarian sartuta bideratu ahalko da.

Lasterketa ekainaren 18an, goizeko 9:00etan Usurbilgo frontoitik abiatuta. Sindromea-ri buruzko informazio gehiago, 22q13.org.es atarian jaso dezakezue.

Itzuli bikoitza, abiada bizian

Estreinakoz, eta behin ez, bitan zeharkatu zuten udalerrri hau Itzulia Women txirrindularien lasterketako partaideek. Donostian hasi eta Gipuzkoako hiriburuan amaitu zen maiatzaren 15eko hirugarren eta azken etapa Txikierritik Aginagara bidean ikusi genuen ondoko irudiko txirrindulari taldea ziztu bizian, eta handik ordubetara alderantzizko bidea egin zuten Hernani aldera, N-634 errepide-tik barrena.



Emakumeen Itzulia maiatzaren 15ean igaro zen Usurbildik.



Kiroldegiko pista zabalik

Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, Oiardo Kiroldegi kanpoko pista zabalik dago aste hasieratik. Eredu honen erabilera sustatu nahi dute, Udaletik gogorarazten dutenez, “itxita egon izan” baita, eta sarritan hutsik. Baina horretarako zenbait arau finkatu ditu Udalak. Batetik, “pista erreserbatzeko aukera egongo da, eta hala egiten dutenek lehentasuna izango dute”.

Zirimarak lehentasuna

Gunearen erabilera prezioaz Kiroldegiko harreraren galdetu behar da. Kiroldegi kanpoko pista erabiltzeko ordutegia ere zehaztu dute:

■ Astelehenetik ostiralera: 16:30-21:00.

■ Larunbatetan: 09:30-21:00.

■ Igande eta jaiegunetan: 09:30-13:00.

■ Astearte eta ostegunetan Zirimarak izango du lehentasuna, 16:30-18:30 artean.

Futbol partidak

Haranen

Maiatzak 21, larunbata

■ 11:00 Infantil neskak:

-Udarregi Usurbil FT “A”-Zarautz KE

■ 12:30 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Soraluce CF

■ 11:30 Infantil mutilak:

-Udarregi Usurbil FT “B”

-Hernani CD

■ 17:00 Preferente neskak, finala Orion:

Mutriku FT-Usurbil FT

■ Preferente mutilak, finalerdiko neurketa.

Maiatzak 22, igandea

■ 09:30 Infantilak: Udarregi Usurbil FT B-Hernani CD

Hausnarketa partekaturako eremu askea, Usurbilgo OinHerri taldearen eskutik

Garai nahasiotan, abia-
da azkarrean doakigun
bizimodu honetan,
tarterik ez da izaten sarritan,
geratu, lasaitu eta patxadaz
pentsatu eta gogoetatzeko.
Denbora soilik ez, espazio edo
bilgune bat ere falta izaten da
gehienetan pentsamenduok
partekatzeko. Gai honi plaza
eskaintzera, denbora eta es-
pazioa ematera dator Oinherri
herri hezitzaileen sareko kide
den Usurbilgo lan taldea.



Udarregi Ikastolako LH 5 eta 6 mailetako ikasleei ere zuzendua egongo da.

Pentsatu eta partekatzeko

Gogora ekarri ditzagun Oin-
herriren helburuak zeintzuk
diren: jolasa eta sormena ikas-
teko eta garatzeko berariazko
tresnatzat dituen haurren kul-
tura aitortzea; horretan oina-
rrituta, haurrei benetan parte
hartu eta erabakitze ahal-
mena ematea; komunitate-sa-
rea eta auzolana indartzea;
edota pertsonen arteko ha-

OINHERRI USURBIL
“Pentsatu, ikuspegi
kritikoa partekatu eta
garatzeko espazio bat
eskaini nahi dugu”

rreman osasuntsu, justu eta
asegarriak jostea. Helburuon
baitan iaz “galeren inguruko
lanketa bat” bideratu zuten

eta aurten maiatzaren 27an,
arratsaldeko 18:30etan Po-
txoenean, hausnarketarako
gune askea osatu asmo dute,
“filosofatzea” xede izango
duena. Ez filosofiaz teori-
zatzeko, gai baten bueltan
hausnartzeko baizik. “Pentsa-
tu, ikuspegi kritikoa partekatu
eta garatzeko espazio bat” es-
kaini nahi du Usurbilgo Oin-

Herrik hitzorduan parte har-
tu nahi duen ororentzat, lan
taldeko kide Asier Huegunen
esanetan.

Bi multzo osatuko dira; bat,
LH 5 eta 6 mailetako ikas-
leekin; bestea, helduekin.
Udarregi Ikastolako ikasleen
kasuan, aurrez aipatu bi mai-
la hauetako ikasgeletan azal-
duko zaie egitasmoa, parte
hartzera animatzearekin ba-
tera. Edonork esku har de-
zakeela gogorazten dute
antolakuntzatik. Ez da alde
aurretik ezer prestatu behar,
ez da ezagutza berezi edo ze-
hatzik behar.

Hausnarketarako gune askea

Eguna: maiatzak 27, ostirala.

Ordua: 18:30.

Tokia: Potxoenea.

Nori zuzendua: LH 5 eta 6 mai-
letako ikasleei eta helduagoei.

Antolatzailea: OinHerri Usur-
bil.

Epaitzea soberan eta adostasunaren beharrik ez

Hilaren 27koa esperientzia
pilotua izango den arren,
Oinherriren Usurbilgo lan
taldeko kideek jada proba
egina dute. Beste udalerrri
batzuetan abian baitira ha-
lako egitasmoak. Esaterako,
arrakastatsua suertatzen ari
den Oiartzungoa. Herri har-
tako esperientzia ezagutze-
ko aukera izan du Usurbilgo
OinHerrik. Ezagutu soilik
ez, hurbiletik bizitzekoa
baita.

Gai bat, abiapuntua

Ekimenok bideratzen la-
guntzen duen Jakinmin
elkarteko kide baten bidez,
ordu eta erdiko saio bat egin
zuten, hilaren 27rako iraga-
rri dutenaren tankerakoa.

“Gai bat jarri zigun, pizgarri
bat”, ia robotek talenturik
izan dezaketen. Harridura
eragin edota ezohikoa izan
daitekeen galdera hau abia-
puntuatzen hartuta bideratu
zuten hausnarketa saioa.

Horretarako espresuki
prestaturiko materiala bi-
delagun, “gidariak gaian
sakontzen laguntzen du;
zergatik pentsatzen
duzun hori, ia gehiago zehaztu
dezakezun”. Modu horretan,
“norberak bere ikuspegia za-
lantzan jarri, bestearena uler-
tu, bestearenarekin kontrastatu
dezake”.

Saiootan parte eta hitza
hartzeko aintzakotzat hartu
beharreko bi kontu; ondokoa
ez epaitzea eta argi izatea,

“ez dugula adostasunera
iritsi behar”. Norberak hitza
modu askean hartu, pentsa-
mendua partekatu, eta elkar
entzuteko eremu librea izan-
go da. “Sakontzen zoazen
heinean, bakoitzak dituen
bizipen eta pentsamenduak
agertzen doaz”, OinHerriko
Usurbilgo lan taldeko kide
Alazne Begiristainek aipatu
digunez.

Ikuspegi kritikoaren lanketa

Baina aberasteko bidea ere za-
baltzen du horrek. “Gertatu li-
teke zure ikuspegia aldatu edo
zureari tinkoago eustea”. Aipa-
tu moduan, ez da zertan ados-
tasun batera heldu beharrik.

Saio honi begira es-
katzen den konpromisoa

parte hartzea baino ez
da, bueltan jasotzen dena
ordea ekarpen oso abe-
ratsa izaten da. “Enpatia,
besteen ikuspegia ulertzea,
ikuspegi kritikoa garatzea
edota taldean hausnartzeko
gaitasuna lantzea”, Asier
Huegunek azaldu digunez.

Jarraitzeko aukera

Saio oso emankorra izan
zenaren adierazle, amaitu-
takoan gertatu zena. “Saiotik
aterata dinamikarekin jarrai-
tu genuen”, oroitzen du Begi-
ristainek. Maiatza amaierako
esperimentazio saio honek
ere harrera ona badu, “asmoa
da hurrengo ikasturtean Oin-
Herri Usurbilen eskutik, ha-
lako hiruzpalau saio egitea”.

STEAM Prestakuntza Osagarria, Lanbide Eskolaren eskaintzan

Lanbide Eskolatik unibertsitatera jauzi egin nahi duena trebatzeko STEAM Prestakuntza Osagarria eskainiko du Usurbilgo Lanbide Eskolak. “Ikasle hauei etorkizunean unibertsitatera joan ahal izateko beraien prestakuntza osatzeko aukera eman nahi die. Helburua, ikasleen artean STEAM gaitasunak (zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematika) indartzea da, etorkizuneko unibertsitate-prestakuntzara egokitzeko, ondoren lan mundura igaro ahal izateko”.

Etorkizunerako formazioa

Hala, astero sei orduko STEAM errefortzua eskainiko du Usurbilgo Lanbide Eskolak, “jada frogatutako metodologia aktiboak eta tresnak” baliatuta; besteak beste, “robotak eta hezkuntza simulagailuak. Ikastetxeko zuzendari Isidro Zalduaren esanetan, “STEAM gaitasunak eta zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematikako kurrikulum-puntuak landuko dituzten diziplina anitzeko erronkak planteatuko ditugu, errealitatearekin zeri-kusi zuzena izango dutenak”. Kurrikulumeko arloak landuko dituzte: “Robotika eta Programazioa (Arduino, Scratch, Python),



Informazio gehiagorako: 943 364 600/lhusurbil.eus

LANBIDE ESKOLA

“Lan-munduak erronka berriei aurre egiteko gai izango diren teknikariak prestatzea eskatzen digu”

Matematika, Fisika, Kimika, Gaztelania eta Filosofia (pentsamendu kritikoa)”. Etorkizunera begirako formazioa da honakoa. “Lan-munduak erronka berriei aurre egiteko gai izango diren teknikariak prestatzea eskatzen digu. Arazo konprentzibak konpontzeko gai izateaz gain, egunerokotik haratago planifikatzeko gaitasuna duten eta

ibilbide luzeagoko irtenbideak eskaintzeko gai izango diren teknikariak behar dira”, Zalduak dioenez.

Matrikulazioa

Hilaren 27ra arte zabalik dago Lanbide Eskolako aurre izen-ematea. Instalazioa eta Mantenua, Energia eta Ura, Administrazioa, Elektrizitatea eta Elektronika eta Mekanika arloetako erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen dituzte. “Goi mailako zikloetan ingelesez ere egin daiteke heziketaren parte bat”, ikastetxearen esanetan. Horrez gain, “ikastaro eskaintza zabala du” langile zein langabetuentzat.

Andatzan indusketa lanetarako deia

Boluntario bila dabil Aranzadi zientzia elkarteak Andatza inguruetan indusketa lanak bideratzeko. Zehazki bost lagun behar dituela berri eman du Usurbilgo Udalak, hiru hilabetez lanean aritzeko; ekainetik irailera hain zuzen. Bi aztarnategi industeko lirateke: “Andatza III, Brontze Aroko monumentu megalitikoa eta Irigain, erromatar garaiko bizitokia”. Interesdunek izen emateko ekainaren 1era arteko epea dute. Online bideratu beharko da inskripzioa. Informazio gehiago jasotzeko izaro.quevedo@uva.es helbidera idatzi. Izaro Quevedo bera eta Manu Zerberio izango dira indusketa hauek gidatuko dituztenak.

Jaietako egitarau lehiaketa

Maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira Usurbilgo jaien berri emango duen egitaraua diseinatzeko lanak. Horretarako lehenbizi Potxoenean egitarauko testua eskuratu beharra dago edo bestela kultura@usurbil.eus helbidean galdegin. Lanak paperean eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, euskaraz, neurri librean, nahi adina lan, banana edo taldean. “Taldeen aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun”. Modu batean edo bestean ordea, lanek aurrez argitaratu gabeak eta originaalak izan beharko dute. “Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da”.

Sari bikoitza

Txapeldunak 500 euroko saria irabaziko du eta bere sortze lana etxe guztietara heltzeko aukera. Informazio gehiagorako: 943 371 999/kultura@usurbil.eus

Dibertimendu itzela Santuenean

Uztaiekin dantzatzeko, jauzika, arkuekin punteria fintzen... Dagokiena eginez, jolastuz dibertimendu beteko arratsaldeak bizi izan zuten maiatzaren 13an Santuenean joandako gaztetxo eta gurasoek. Auzo elkarteok joko ezagunak kalera aterata jolastokian bilakatu zuten eskubaloi plaza. Musikaz giroa ere bai, Dj Gorka Mendiren eskutik. Eta jolasean bideraturiko energia berreskuratzeko, askari eder askoa prestatu zuten auzotarrei nahiz bertara bisitan joandakoei.



Santueneako eskubaloi plaza jolastokia, maiatzaren 13an.

Datorrena, 2022-23 ikasturterako Zumarten matrikulatzeko astea

Datorren ikasturtean, musika instrumentu-
ren batean trebatu edo-
ta alor honetako ikastaroren
bat egin nahi duenak, datorren
astean izango du Zumarte Mu-
sika Eskolan matrikulatzeko
aukera. Bertatik izen-emate
kanpaina honi buruzko xehe-
tasunak helarazi dituzte.

Matrikulazioa online edo aurrez aurre

- Epea: maiatzak 23-27.
- Eskaintza: Musika txokoa, musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, esku-soinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, kantu modernoa, abesbatza eta talde instrumen-
talak.
- Ordutegi presentziala: 10:00-12:30/17:30-19:00 (asteartea eta osteguna).
- Matrikulazioa: online zumarte.eus atarian edo inprimakia eskuz bete eta Zumarten aurkeztu.

Santuenena K.E.-ren bi ikastaro asteotan

Joskintzarena maiatzaren 20an, 17:00-19:00 artean Santuenena 12an Mari Carmen Orozkin. "Nork bere makina eraman behar du", ohartarazi du antolakuntzak. Gune eta ordutegi berean baina hilaren 20an eta 27an sendabelarren tailerra eskainiko da. Tailerrotan izen emateko deitu 670 027 731 telefono zenbakira.



Apirilean egin zuten Zumarte-La Selva (Girona) trukaketaren irudia.

ZUMARTE

"Maiatzaren 23tik 27ra izango da Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko aukera"

- Ordainketa: plaza kopuruen zozketa egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ostean, izena emandakoak adierazitako kontu zenbakian %10a ekaina bukaeran kobratuko da, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendua hasieran.
- Hobariak: familia ugarietan

edo familia unitate bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta egonez gero, %40ko deskontua aplikatuko dute matrikulatutako ikasle gazteenaren kasuan.

- Oharra: tronboia, saxofoia, tronpeta, flauta, klarineta edo biolina ikasten hasten direnek, nahi izanez gero eta ikasle-entzat egokiak badira, Zumartek urtebetez utzi ahalko ditu instrumentuok.
- Informazio gehiago: 943 371 594 zumarte.eus
- Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

KzGunera datozen ikastaroak

Saiook iragarri dituzte:
-Maiatzak 26, 16:00-18:00: Online izapidetza Osakidetza-
rekin.
-Maiatzak 30, 16:00-18:00 "Sortu bideoak zure gustuko-
en irudiekin".
-Ekainak 1, 9:00-11:00 "Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi".

Sexu heziketa tailerra, atzeratua

"Ipuinak sexu heziketaz blai" maiatzaren 17 eta 24rako Sute-
tegi udal liburutegiak eta Sexu Aholkularitza Guneak antola-
turiko tailerra atzeratu egingo dela iragarri dute. Halere, Elene Jimenez sexologoa bideratze-
koa zen tailerrean lantzekoak zizutzen ipuinen bibliografia eskuragarri duzue udal liburu-
tegiaren bertan.

Kanpaldirako izen-ematea

Aurre izen-ematea egoki bi-
deratu zutenek, maiatzaren 22ko arratsaldeko 20:00ak arteko epea dute, email bidez jasoko duten jakinarazpene-
ko estekaren bidez, Ziortzak uztailerako Peñaloscinto-
sen (Errioxa) antolatu duen kanpaldian matrikulatzeko. Deialdiak izan duen harrera ikusita, antolatzaileek aurrei-
kusi moduan bi ez, azkenean hiru txanda egokitu dituzte, izena emandako guztiak joan daitezen.

Zirimaran izen-ematea

Zabalik da hurrengo ikastur-
terako Zirimaran izen ema-
teko epea maiatzaren 27ra arte, 0-6 arteko haurren eta LH1-4 mailetako ikasleen fa-
milientzat. Matrikulaziorako formularioa, <https://forms.gle/gQa4UkzFh8p7PaPE7> es-
tekan eskuratu daiteke. Es-
kola Kirolean parte hartzeko ezinbestekoa da Oiardo Kirol-
degiko bazkide izatea. Bestal-
de, abonamendu horietarako errentaren araberrako hoba-
riak eskura daitezke.

Aginagako txokoak

Maiatzaren 20an itxiko dute dute Aginagan, ekainaren 22tik 30era, 10:30-12:30 ar-
tean LH 1-6 mailetako ikas-
leentzat antolatu dituzten txokoetan izen emateko epea, zirkua berrikuntza gisa du-
tela. Whatsapp mezua bidali behar da 695 723 192 (Aitzi-
ber) telefono zenbakira.


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL


BONEX
REHABILITACIONES S.L.
ERAIKINAK BIRGAITZEKO
ETA HOBETUNTZA ENERGETIKOA
LORTZEKO SOLUZIOAK
* Impermeabilizazioak
* Isolamendu termikoa
* Teillatuak
* Mantenimendua
* Fatxadak
Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es


Inaki
Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Santuenean adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar

da. Astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsalde, eta larunbatean goizez. Guztira 38 orduko lan astea. Adinekoak zaintzeko titulua izatea baloratuko da. Interesatuok deitu 652728446 zenbakira.

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, egunezko lau ordu, Eusko Jaurlaritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko disponibilitatea daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egite-

ko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaqucamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak daukat. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzagu salgai. 6/7 hilabetetako bost txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)



Zorionak! Santueneako Gure Elkartea jubilatuen bilguneak 75 urte bete dituen ondoko boskotea omendu du: Joxe Mari Arrospide, Joxe Julian Zubeldia, Kontxi Landa, Aurora Peña eta Martina Valdes. Atxegan eginiko omenaldian oroigarri bana jaso zuten.

**Zorionakkkkkkkk Eire!**

11 urte bete dituzu maiatzaren 18an.

Printzesa, muxu handi bat etxekoan partez!

**Zorionak Naiara!**

Maiatzaren 20an eta 11 urte!!! Gure trapezista handitzen ari zaigu!! Ondo pasa eta ospatu zure eguna!! Prestatu bizkotxo eta denok batera ospatuko dugu. Txokolatezko 11 muxu handi familia osoaren partez!!

**Zorionak Ashley!**

Maiatzaren 18an 10 urte egin dituzu eta familia guztiaren partez besarkada haundi bat eta muxu potolo bat bidaltzen dizugu!! Zorionak!!!

Goardiako farmaziak

Osteguna 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 21 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 29 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda maiatza

19 osteguna

- **"Improvisa un'antiga poesia" bertso saioa sardoz eta euskaraz.** 19:00ean Sute-egin. Txartelak bertosarrerak.eus atarian. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

20 ostirala

- **Joskintza eta sendabelarren tailerrak.** 17:00-19:00 artean Santuenea K.E.-ren egoitzan. Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

22 igandea

- **39. Sagardo Eguna.** 11:30 Irekiera ekitaldia eta dastaketaren hasiera.
- **"Presoak txotx!" txosna eremua.** Talogileak, topa, musika...
- **Xarnegu ikastolakoen bisita.** 11:00 Ikastolan bisita. 12:00 Kalejira Mikel Laboa plazatik.

"Presoak Txotx!" karpagunea

Sagardo Egunaren itzulerarekin, Mikel Laboa plazan ere "Presoak Txotx!" karpagunea egokituko du Usurbilgo Ernaik. Egun osoko egitaraua osatu dute maiatzaren 22rako. Musika, talogileak... Egun osoko jai giroa frontoi atzean. Gogoan izan bestalde, Oriora antolaturiko mendi martxaren ondotik, astebete barru, Sarek deitutako euskal presoek eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea izango dela gune berean; hilaren 27an arratsaldeko 20:00etan hasita.

Maiatzak 22, igandea

- 11:00 Txosna irekiera.
- Goizean zehar, presoek aldeko talogileak.



Sarek hilaren 7an Oriora antolatu zuen mendi martxako parte hartzaileak.

- 13:00 Euskal presoek aldeko topa.
- 16:45 Irizarreko langileekiko elkartasun argazkia.
- 17:00 Rukula.
- 19:00 Dj Jotatxo.

Antolatzailea:
Ernai Usurbil.

Sagardo Eguneko irudiak partekatzeko deia

Maiatzaren 22ko 39. Sagardo Eguneko hainbat une argazkitan bilduko nahiko dituzue. Antolakuntzatik, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldetik NOAUA! bidez ondoko oharra zabaldu nahi dute. Argazkiak sare sozialen bidez zabaltzerakoan ez ahaztu "@usurbilgosagardoeguna" etiketa

txertatzeaz. Hartara, argazkiok antolatzailerik euren sare sozialen bidez hedatzeko aukera izango dute. Modu horretan, Sagardo Eguna prestatu duen taldearen argazkien artxiboa aberasten lagunduko duzue, herriko nahiz herritik kanpoko sagardogileen lana sustatzearekin batera.

Datozenak

Joseba Sarrionandia Sute-egin

"Habanako gaukariak" pieza soltez osaturiko hiru liburu aurkeztera etorriko da idazle ezaguna, datorren maiatzaren 25ean arratsaldeko 19:00etan Sute-egin auditoriora. Hizkuntza, literatura, (geo)politika, nazioa, Euskal Herria, Kuba/Habana, historia, kolonialismoa, oroimena... hizpide duten Sarrionandiaren pentsamendu, hausnarketa edota pasarteak biltzen dituzte. "Liburuak eskuragarri daude liburutegian", ohar-tarazi du antolakuntzak, Usurbilgo Udalak. Liburuon bueltan solaserako tarte izango da hilaren 25ean, aipatu idazlearekin.

"Gipuzkoako organoak plazara" zikloa

Herrialde mailan dugun ondarea eza-gutarazi eta goraipatzeko zikloaren bosgarren edizioa antolatu dute Musikene-k eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egunotarako. Liesbeth Schlumberger hegoafrikarraren kontzertua eta masterklasa egin dute azken egunotan Salvatore Elizan. Azken ekintza maiatzaren 21ean toki berean. Goizeko 11:30etan hasita organoaren aurkezpena Organoaren Lagunak taldeko kide Joan Luis Atxega herritarraren eskutik, Salvatore Elizan.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA **943 36 10 79**

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Ezagutu zure pertsonaia gogokoenak Urbilen.



Aurten, 22 urte bete ditugu zurekin batera, esperientziaz, ilusioz eta ametsez.



Maiatzaren 21ean, Urbilen

17:30tan Sarrera libreko photocall-a

18:30tan Disneyland Pariserako 4 sarreren zozketa

Gogoratu maiatzaren 21era arte parte har dezakezula zozketan, Urbileko doako aplikazioan sustapeneko kupoia aktibatuz. Kupoia: **DISNEYLAND SARRERAK**. 2 sarrera helduentzat eta 2 haurrentzat (3-11 urte). **Maiatzaren 21ean, zuzenean ezagutuko dugu irabaz-lea.** Informazio guztia hemen: urbil.es.

BLOG



urbil.es

IMFPB USURBIL OLHUI

Oinarrizko Lanbide Heziketa

sukaldaritza
eta jatetxea

ile-apainketa
eta estetika



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA BAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURREMATRIKULA

Epea Maitzaren 9tik maiatzaren 27ra (biak barne).

Tokia Atallu. Zanziura, 3

Telefonoa 943 36 04 65

Posta lhi@usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!
olh.usurbil.eus

- 15-17 urte bitarteko gazteak
- DBH Graduatua
- Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara
- Lan - munduratzeari. Profesionaltasun ziurtagiria, 1



olh_usurbil